

Lau urtean, partaide-kopurua zazpi bider handitu da

2016-2017 IKASTURTEAN, 189.900 IKASLEK BAINO GEHIAGOK PARTE HARTU DUTE EROSKI-REN ELIKADURA-ESKOLAN

- Espainiako Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailako ikasleen ia % 10ek parte hartu du ekimenean, haiek baitira xedea
- Espainiako Lehen Hezkuntzako ikastetxeen % 20k parte hartu du programan 2013an abiatu zenetik
- Ekimenaren helburua ikasleak sentsibilizatzea da, elikadura orekatuaren eta bizimodu osasungarriaren garrantziaz ohar daitezen
- Ikasturte honetan, Basque Culinary Centerreko sukaldariak tailerrak eman dituzte, bisitak egin zaizkie nekazaritzako elikagaien ekoizle berriei, eta euskarri digital berriak erabili dira programa lehen baino errazago gauzatzeko
- Hurrengo ikasturteari begira aurreikusi da formatu berria ematea errezeta osasungarrien Imagine Food marrazki-lehiaketari

Elorrio, 2017ko uztailaren 18a.- Espainiako Lehen Hezkuntzako 1.691 ikastetxetako 189.900 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute [EROSKI Fundazioaren Elikadura Eskolaren](#) Elikadura eta Ohitura Osasungarriei buruzko Heziketa Programaren V. edizioan. Espainiako Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailako ikasleen ia % 10ek parte hartu du ekimenean bukatu berri den 2016-2017 ikasturtean, haiek baitira xedea. Aurreko ikasturtearen aldean, hala ikasle- nola ikastetxe-kopurua nabarmen handitu dira; zehazki, ikasle-kopuruak % 50 egin du gora, eta ikastetxe-kopuruak, % 30. Datu horiek berresten dute programari buruzko iritzia positiboa dela, eta aipatzekoa da azken lau urteotan zazpi bider handitu dela partaide-kopurua.

Programa 2013an abiatu zenetik, Espainia guztiko Lehen Hezkuntzako ikastetxeen % 20k eman dute izena. "*Gure heziketa-programaren helburua Lehen Hezkuntzako haurrak eta haien ingurukoak sentsibilizatzea da, elikadura orekatua eta bizimodu osasungarria izatearen garrantziaz ohar daitezen. Hortaz, gero eta handiagoa den haurren obesitate-tasa geldiarazi nahi da, eta programa hau haien neurrira egina dago, osasungarri eta indartsu hazteko*", aipatu du EROSKI Fundazioko zuzendariak, Alejandro Martínez Berriochoak. "*Programa hau 2013an abiarazi genuen, eta ordutik gaurdaino, guztira, 2.821 ikastetxetako 409.010 ikaslek parte hartu dute*", zehaztu du.

Programa egiteko, Batzorde Zientifiko bat egon da, zenbait arlotako profesionalekin: medikuntza eta pediatria, nutrizioa eta dietetika, psikopedagogia eta pedagogia. "*Urtez urte, programa bizkortzen eta hobetzen ari da bertan parte*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

hartu duten irakasleen balorazio eta ekarpenei esker", azaldu du EROSKI Fundazioko zuzendariak.

Tailer berria Basque Culinary Centerrekin lankidetzan

Programaren barruan, ikasgelan lantzeko hamar saio didaktiko daude, eta horiek osatzeko, hiru tailer praktikoa mota daude. Ikasleek erosketa osasungarria egiten ikasten dute EROSKIren denda batean, eta aukera dute nekazaritzako elikagaien tokiko ekoizle baten instalazioetara joateko, bertatik bertara jakin dezaten janaria nondik datorren.

Programako edukiekin, ikasleek ikasten dute oinarrizko zer osagai dituen elikadura orekatuak, eta horrekin batera, nolakoak diren ohitura osasungarriak, tokiko produktuak, zenbait kulturatako dietak, eta planetaren iraunkortasuna. Unicef, WWF eta Bihotzaren Espainiako Fundazioa Elikadura Eskolaren kolaboratzaileak dira, eta heziketa-programako edukien zati bat prestatu dute.

2016-2017 ikasturtean, 1.160 tailer baino gehiago egin dira EROSKIren 209 dendatan, eta 27.600 ikasle baino gehiagok parte hartu dute. *"Aurten, tailer berria izan dugu, Basque Culinary Centerreko sukaldarien kolaborazioarekin. Ikasleek menu orekatua prestatzen ikasi dute, eta egun horretan chef bihurtu ziren. Horrez gain, nekazaritzako elikagaien hainbat ekoizle berrik bat egin dute programarekin", azaldu du Martínez Berriochoak.*

Hurrengo ikasturteari begira, eduki eta jarduera berriak txertatuko dira heziketa-programan. *"Zabalduta egingo ditugu Ikasgelako chefa eta elikagaien tokiko ekoizleei bisitak egiteko tailerren formatu berriak, eta errezeta osasungarrien Imagine Food marrazki-lehiaketaren formatu berria ere abiaraziko dugu, aurreko bi edizioetan oso arrakasta handia lortu baitzuen", aurreratu du EROSKI Fundazioko zuzendariak.* 2017-2018 ikasturtean programan parte hartu nahi duten ikastetxeek izena eman dezakete, <https://www.escueladealimentacion.es/eu> webgunean edo arretarako 946 072 841 telefono-zenbakira deituta.

Aitorpena, ohitura osasungarriak sustatzeagatik

Urterik urte, ikasturtean zehar programan parte hartu duten irakasleek 9ko nota jartzen diote, puntu-kopuru handiena 10 izanik.

Elikadura osasungarria sustatzeko EROSKI Fundazioaren heziketa-programak aitorpen asko izan ditu; besteren artean, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren NAOS saria, eta El Chupete saria, programaren sormenaren kalitateagatik eta haurrei erakusten dizkien balioengatik.

Jaso dituen azken sariak honako hauek izan dira: Herritarren Saria, Osasunaren eta Bizi Kalitatearen kategorian, eta Gosasun ziurtagiria, EAEko Berrikuntza Agentziak emana.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)